

2/2020 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
MARTXOAREN 10ean EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoingo alkatea

KONTZEJUKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE:

Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hogeiko martxoaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERREDA

1. Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta haren onespina.
2. Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
3. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkarien izendapena.
4. Garapen lankidetzarako deialdia.
5. NUKFren Plan Estrategikoaren prozesu parte-hartzailea.
6. Immatrikulatutako ondasunen lantaldea.
7. Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendaritza nagusiarekin eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendaritza nagusiarekin izenpetutako hitzarmena Gobernu Irekiaren alorrean elkarlanean aritzeko.
8. Lehendakariaren informazioa.
9. Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren aktaren onespina

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak otsailaren 11n egin zen Batzorde Betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, bosgarren orrialdean akats zuzenketa bat proposatu du, Prestakuntzarako Batzorde Paritarioaren inguruan hark esandako hitzetan. Honakoa adierazi beharko luke aktak: eskertzekoa dela prestakuntzarako planaren tramitazioa azkartzea lortzea eta Alvarez jaunak hala espero duela.

Inork ez du ohar gehiagorik egin, hortaz,

ERABAKI DA:

2020ko otsailaren 11n egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Nafarroako Osasun Kontseilua, (2020/02/18).** Datozen lau urteetarako osasuneko estrategiaren eta 2020ko aurrekontuaren berri eman zuten. Halaber, zonaldeko osasun kontseiluak berrabiatzeko asmoa dagoela adierazi zuten.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2020/02/24).** Amaitu gabe gelditu zen Hondakinei buruzko Foru Dekretuaren proiektuaren inguruko afera, batzordean egindako zenbait ekarpen gehitzeko zain.
- **Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Gobernu Kontseilua, (2020/02/25).** Departamentu berriaren estrategia azaldu zuten Nafarroako Osasun Zerbitzuaren gobernantzari lotuta, eta lehentasunezko lan-ildoak ere adierazi zituzten. Halaber, 2020ko aurrekontuen aurreproiektuaren eta urteko memoriaren berri eman zuten.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua, (2020/02/26).** Kontseiluaren jarduketa planaren berri eman zuten eta kontseiluaren barruan batzordeak sortzeko asmoa adierazi. Halaber, itun bat landuko dutela jakinarazi zuten.
- **Baimentzeen Batzordea, (2020/02/27).** Zahar etxeak eta adinekoen zein desgaitasuna duten pertsonentzako bestelako zentroak baimentzeko dekretu berria egiteko lan-bilera berri bat egin zen.
- **Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua, (2020/02/28).** Zenbait deialdiren berri eman zuten.
- **Nafarroako Osasun Kontseilua, (2020/03/05).** Koronabirusaren arazoari heltzeko soilik deitu zen bilera. Informazioa helaraziko zigitela adierazi ziguten.
- **NELS Sarea Koordinatzeko Batzordea, (2020/03/06).** Nafarroako Lurraldeko Estrategia eta Errealitate Sozialaren Behatokia izan zituzten hizpide. Halaber, hirigintza alorrean proiektu berritzaileetarako laguntzen berri eman zuten.

Zahar etxeei dagokionez, Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, adierazi du Eskubide Sozialen Departamentuaren eta LARES zahar etheen eta adinekoei arreta emateko zerbitzuen elkartearen arteko bilera egin zela eta Norbera Babesteko Ekipoen horniketa falta zegoela adierazi zutela. Hori dela eta, Alvarez jaunak dio ekipo horien banaketa igualitarioa egin beharko litzatekeela eta eskaera hori helarazteko eskatu du.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkarien izendapena

Lehendakariak adierazi duenez, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariak erakunde horretako ordezkari bat Nilsako Administrazio Kontseiluan sartzeari eskatu du. Gai hori Nilsako kudeatzailearekin aztertu ondoren, kontseilu horretan NUKFren ordezkari berri bat izendatzearen inguruko puntua sartu zen bilkura honetako gai-zerrendan. Izendapen hori kontseiluko kide kopurua handitzearen mende egongo litzateke, eta alde aurretik onartu egin beharko litzateke kopuru handitze hori. Gogorarazi dutenez, kontseiluak osatera paritarioa du NUKFk izendatzen dituen toki entitateen ordezkarien eta Nafarroako Gobernuaren ordezkarien artean.

Hala ere, lehendakariak adierazi du, Mankomunitateak gaia aurrerago lantzeko uzteko eskaera egin duela eta, horregatik, gai-zerrendatik kanpo utzi dutela puntua.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, adierazi du egokitzat jotzen duela Mankomunitatea Nilsaren partaidea izatea. Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, esan du ordea, ez duela eragozpenik ikusten baina ona litzatekeela informazio gehiago edukitzea eta mankomunitateak kontseiluan parte hartzeak izanen lukeen eraginari buruzko txosten bat edukitzea.

ERABAKI DA:

Horretaz jabetzea.

4. PUNTUA.-Garapen Lankidetzarako deialdia

Lehendakariak adierazi du 2020ko lankidetzarako jarduketan barruan aurreko Batzorde Betearazlean onetsitako garapen lankidetzarako urteko deialdiari dagokionez, aldaketa txiki bat proposatu dela eta, horregatik ekarri duela Batzorde Betearazlerra.

Aldaketa hori, Lankidetzarako Batzordeko kideekin landu da dagoeneko, eta Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, bertako kide den aldetik, aldaketa honakoa dela adierazi du: proiektuaren kalitateari dagokion haztapena handitzea uraren, oinarriko osasunaren eta lehen mailako hezkuntzaren proiektuei haztapen bikoitza kenduta. Aurrerantzean, proiektu horiek gehien baloratzen diren proiektuak izaten jarraituko lukete baina balorazio gehigarririk gabe.

Bilkura honetarako deialdiarekin batera, Garapen Lankidetzarako deialdia aldatzeko proposamena igortzeaz gain, deialdia bera bidali da aldaketa horrekin geldituko litzatekeen bezala.

ERABAKI DA:

Garapen Lankidetzarako Urteko Deialdiaren aldaketa onestea adierazitako baldintzetan.

5. PUNTUA.-NUKFren Plan Estrategikoaren prozesu parte-hartzailea

Lehendakariak Plan Estrategikoa egiteko otsailaren 25ean sortutako taldeak onetsi duen proposamena azaldu du. Proposamen horretatik, bestea beste, hainbat eremutan eremuko bilerak egiteko asmoa azaldu du eta bilera horietan jarduketa ildoan inguruko galdetegi baten inguruan lan egingen dela adierazi du. Jakinarazi duenez, dagoeneko, galdetegia egiten ari dira eta hurrengo Batzorde Betearazlean emanen da horren berri. Era berean azaldu du prozesu parte-hartzaileetan aditua den laguntza teknikoa kontratatzea egokitzat jo dutela eta Plan Estrategikoaren taldeak laguntza teknikoa kontratatzeko eskaintzen balorazio-prozesuan parte hartuko duela. Era berean adierazi du berdintasun alorrean ere laguntza teknikoa izanen dutela NABlrekin izenpetutako hitzarmenari jarraiki.

Eremuko bilerei dagokienez, asmoa da aste santua ondoren, apirilaren 20ko astean, abiatzea.

Prozesuaren kronologiari helduta adierazi du, bileren ostean ondorioak biltzeko dokumentu bat osatzen joanen direla eta horren berri ekaineko Batzarrean eman ahalko dela.

Oroz jaunak, Urdiaingo alkateak, Donezteben bilera bat gehiago egitea proposatu du.

ERABAKI DA:

NUKFko Plan Estrategikoaren taldeak eginiko prozesu parte-hartzailearen proposamena, eranskin modura atxikitzen dena, onestea Donezteben bilera bat gehiago eginez. Halaber, proposamenean adierazitako laguntza teknikoak onestea.

6. PUNTUA.-Immatrikulatutako ondasunen lantaldea

Lehendakariak adierazi du, dagoeneko, Immatrikulatutako Ondasunen Plataformaren lehendakariarekin bildu direla aurreko legealdien antzera, honetan ere, antzeko lantalde bat sortuko dela jakinarazteko.

Lantalde horren kideei dagokienez, proposatu du Batzorde Betearazlearen nahi duten kide guztiak sar daitezkeela baita bertan parte hartzeko interesa adierazten duten bestelako toki entitateek ere. Hala egin dute, jada, batzuek. Esate baterako Lizoain-Arriasgoitiko Udalak eta Echagueko Kontzejuak; aurreko legealdian ere bertako ordezkariak taldean egon ziren. Agoizko Udalak ere parte hartzeko interesa adierazi du eta bertako ordezkaria, Batzorde Betearazleko kidea den aldetik, taldearen koordinazio-lanak egiteko prest dago aurreko legealdian Agoizko alkateak egin zuen modura.

Unzue Agoizko alkate jaunak galdetu du plataformako kideak ere taldean egongo diren. Idazkari nagusiak azaldu duenez, aurreko legealdian bezala, toki entitateetako ordezkariak ez badira, gonbidatu gisa joan ahalko dira taldeak eginen dituen saioetara.

ERABAKI DA:

Immatrikulatutako ondasunen lantaldea sortzea onestea adierazitako baldintzetan.

7. PUNTUA.- Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin izenpetutako hitzarmena Gobernu Irekiaren alorrean elkarlanean aritzeko.

Lehendakariak hitzarmen hori izenpetzea proposatu du Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiarekin aurreko legegintzaldiko baldintza berdinetan elkarlanean aritzeko. Hitzarmen horrek, nolabait, herritarrekiko parte-hartzearen alorrean joan den legealdian izenpetutako praktika onen protokoloari jarraitasuna emanen lioke.

Hitzarmenean, aldeek beregain hartzen dituzten konpromisoak zehazten dira, besteak beste, Gobernu Irekiari buruzko jardunaldiak eta prestakuntza ekintzak antolatzea, toki entitateen foroen edo taldeen sorrera sustatzea, toki entitateetan prozesu parte-hartzaileak abiatzen laguntzea eta abar.

ERABAKI DA:

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendaritza nagusiarekin eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendaritza nagusiarekin hitzarmena izenpetzea onestea Gobernu Irekiaren alorrean elkarlanean aritzeko; eta lehendakaria gaitzea hitzarmena izenpetu dezan.

8. PUNTUA. Lehendakariaren informazioa

- Otsailaren 13an Eskubide Sozialen Kontseilariarekin izandako bileran zenbait gaietan elkarlana eskatu zitzaion: Bermatutako errenta kudeatzeko toki poliziaren laguntza bizitokia egiaztatzerakoan, onesten diren enplegu sozialerako deialdietan parte-hartzea, laneratzeko enpresen aldeko %6ko erreserba betetzeko jardunaldian elkarlana.
- Otsailaren 24an Toki Administrazioaren Zuzendari Nagusiarekin izandako bileran, jorratzeke zeuden gaiak berrikusi ziren: administrazio elektronikoaren ezarpena eta abar.
- Beste bilera bat egin zen gizarte zerbitzuetako adinekoen zentroyen funtzionamendua arautzeko dekretu berria egiteko.
- Nafarroako Aldizkari Ofizialaren zuzendariarekin bilera egin zen argitalpenen atzerapenen eta ezarritako epeen inguruan informazioa biltzeko.
- Martxoaren 6an Nasertic-eko kudeatzailearekin bilera egin zen Banda Zabaleko Planaren inguruan dauden aurreikuspenak jakiteko. Lehendakariak adierazi duenez, orain, helburu berriak egiteko fasean daude eta zenbait eremutara heldu ahal izateko bestelako irtenbideak proposatu ziren bileran, besteak beste, irriati-lotura. Zabaleta jaunak, Leitzako alkateak, adierazi du gauza bat dela banda zabala eta bestea zuntz optikoa. Azken hori hiri eremuetarako egokiagoa dela esan du baina beste eremuetarako irtenbide merkeagoak eta bideragarriagoak daudela adierazi du.

Gai horren inguruan, finantzazioaren gaia aipatu da eta banda zabaleko beste plan bat egongo den galdetu dute. Lehendakariak erantzun du gaia aztertzen ari direla. Halaber, adierazi dute zenbait kasutan banda zabala iritsi dela baina ehuneko ehuna ematen ez duten enpresekin. Horregatik, uste dute, Nasertic-ek enpresa horiek behartu beharko lituzkeela.

- Datorren martxoaren 13an Nafarroako Jokoaren Kontseiluak bilera deitu duela jakinarazi du lehendakariak. Adierazi duenez, eskatu bezala, horren inguruko informazioa helarazi digute nahiz eta bertako kide ez izan.
- Bestalde, azaldu duenez, bizigarritasun-zedulak arautzeko foru dekretu berriaren tramitazioari dagokionez, eskatu bezala, zirriborroa igorri digute lantzen joateko.
- Transferentzia Arrunten Funtse ordaintzeari dagozkion kudeaketei helduta, egindako kudeaketen berri eman du.
- Osasuneko Departamentuak koronabirusari buruz igorri digun informazioaren berri eman du.
- Garapen Iraunkorreko Helburuei buruz NUKFk, NELS sareak, Nafarroako Gobernuak eta GGKEen Koordinakundeak elkarlanean egingen duten hurrengo jardunaldiaren berri eman du.

ERABAKI DA:

Horretaz jabetzea.

9. PUNTUA- Galde-eskeak.

Segura andreak, Villafrancako alkateak, adierazi du lehen Gas Natural enpresak kanalizazioa prestatzen zuela eta hala nahi zuten herritarrek alta ematen zutela. Orain berriz, adierazi duenez, kanalizazioa egiten dute alden eskaera eta konpromisoa dagoenean soilik. Horren inguruan zer edo zer egin ote daitekeen galdetu du.

Larraza jaunak, Irurtzungo alkateak, esan du herri batzuetan Animaliak Babesteko Legearekin eta lege horren betekizunarekin kezka handia dagoela. Batez ere, abandonatutako zakurren kudeaketarekin eta katuen koloniek. Horregatik, gai horren inguruan Nafarroako Gobernuarekin hitz egiteko eskatu du.

Zabaleta jaunak, Leitzako alkateak, eskola jantokien lizitazioen inguruan eskertu du Hezkuntza Departamentuak egindako ahalegina. Bestalde, Nekazaritza Politika Erkideak eskubideen alorrean sortzen dituen arazoak aipatu ditu. Horri loturik Nafarroako Gobernuarekin mahai bat eratzea proposatu du banaketa irizpideak erabakitzeko, batez ere, herri-lurren hektareak banatzeari dagokienez.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, Erregistro Zibilari buruzko Legeak udaletan eta herritarrengan duen eraginaren inguruan eskatu zuen txostenari buruz galdetu du. Idazkariak jakinarazi duenez, lanean ari dira eta Nafarroako Gobernuko Justizia Departamentuarekin harremanetan jarri dira horri buruzko informazioa biltzeko.

Halaber, Oroz jaunak adierazi du, baserri tradizionalen arazoari buruzko ikerketa bat egiten ari direla eta eskatu du ikerketan NUKFk ere parte hartzea.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemeretziak eta hogeita hamar direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.